

ataria

2022-04-01 • 1.579. zenbakia
107.6 fm • Ataria.eus

Gorazarre Otamendi eta Dorronsororen ibilbideari





AURKIBIDEA

Iritzia Ura Iturralde **3**

Elkarrizketa Xumai Aizpuru,
Uemako udalekuetan begirale **4-7**

Sapere Aude

Ane Amundarain **8-9**

Hitzez Hitz Mikel Artola **10**

Asteko Gaia Errekonozimendua
Otamendi eta Dorronsorori **11-17**

KMK Josu Ozaita **18**

Iritzia Manex Gurrutxaga **20**

Iritzia Maddi Amiano **21**

Agenda 'AMArAun' **26-29**



Azaleko irudia
Josu Artutxa Dorronsoro

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana eskaratu

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Che Guevararen madarikazioa



URA ITURRALDE
ARGAZKILARIA

Martxoaren 10ean hil zen Mario Teran, Che Guevara exekutatu zuen militar boliviarra, laurogei urte zituela. Ni hantxe egon nintzen duela urte batzuk bere etxe aurrean Bolivian, el-karrizketatu eta argazki batzuk ateratzeko intentzioarekin. Deitu ere egin nion arren ez zidan bere denbora eskaini. Agian hobe, pentsatu nuen... ez nekien zer galdetu ere hainbeste gorrotatzen nuen pertsona hari.

Nire bidaia jarraitu nuen beraz buruan antolatuta neraman bezala, La Higuera, komandantea hil zuten tokira, iritsi arte. Bertan bai elkarriketatu ahal izan nituen Che ezagutu zuten pertsonak eta haien bitartez izan nuen «Che Guevararen madarikazioaren» berri.

Herri sinismenak dio, Che Guevararen hilketan nolabait parte hartu zuten militar guztiek egoera arraro xamarrean euren bizia galdu zutela edo denboraren poderioz beste ezbehar batzuk jasan zituztela. Hona hemen nire koaderno txikian jaso nuen informazio guztia:

GARY PRADO

1967ko urriaren 8an Guevara atxilotu zuten gerrillarien kapitaina izan zen bera. 1980. urtean Gary Prado gorpil-aulkian geratu zen ustekabeko tiro batek bizkarrezurra kaltetu ondoren. Gaur egun laurogeita lau urte ditu.

RENE BARRIENTOS

Boliviako presidente ohia zen garai hartan, berak eman zuen Che hiltzeko agindua. Helikoptero istripu batean hil zen Bolivian berrogeita bederatzi urte besterik ez zituela.

JOAQUIN ZENTENO

Zazpigarren dibisioko komandantea izan zen Bolivia-ko Santa Cruz izeneko hirian. Guevara hil zuen militarra aukeratu omen zuen berak. Tiro egin ziotenean ere bertan zegoela esaten dute. Parisko kaleetan hil zuten, 1976ko maiatzaren 11an, bi sikariok.

ANDRES SELICH

Jeneral boliviarr honek Che Guevararen gorpua desagerarazi zuen. Berari buruz ez dago informazio zehatzik, 1973an erail zutela besterik ez.

ROBERTO QUINTANILLA

Bere aginduz moztu zizkioten eskuak Che komandanteari. Emakume aleman batek erail zuen, ustez gerrillariaren heriotzaren mendekuan.

Eta azkenik aurretik aipatu bezala Mario Teran, Che Guevara tirokatu zuen soldadua. Bere bizitza osoa une hartan laburbiltzen da, munduko historia betirako aldatuko zuen momentu hartan. «Ez nintzen auzartzen tiro egitera, Guevara nuen aurrean, 'gizon bat

«Asko dira Che Guevararen inguruan gaur egun ere esaten direnak... eta nik behin eta berriz galdetzen diot neure buruari: 'Nolakoa izango litzateke bizi garen mundua erail ez balute?'»

hiltzera zoaz!', esan zidan berak eta azkenean begiak itxita tirokatu nuen», esan zuen elkarriketa batean.

Minbiziak eraman du gizona, duela urte dezente ia itsu geratu zela ere esaten dute, mediku kubatarrek ebakuntza baten bitartez sendatu ahal izan zuten arte.

Zurrunmurrak, herri sinismenak... asko dira Che Guevararen inguruan gaur egun ere esaten direnak.. eta nik behin eta berriz galdetzen diot neure buruari: «Nolakoa izango litzateke bizi garen mundua erail ez balute?».

Nork daki...

«Harreman estuak sortzen dira»

XUMAI AIZPURU ZINKUNEGI
BEGIRALEA

Uemak antolatzen dituen Salto! Gazteen Topaketetako udaleku ibiltarian bigarren urtez begirale moduan ariko da astebetez Xumai Aizpuru Zinkunegi alegiarra; esperientzia «izugarri» moduan du iazkoa.

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Xumai Aizpuru Zinkunegi (Alegia, 2000) begirale lanetan ariko da Salto! Udalerri Euskaldunetako Gazteen Topaketetan. Iaz bertan izan zen lehen aldiz, eta aurtun errepikatu egingo du. Ekainaren 27tik uztailaren 3ra egingo dira Etxarri Aranaztik eta Tolosatik abiatuta, eta Leitzan bukatu dute bi adarrek.

Uemak antolatutako Salto! Gazteen Topaketetako begirale izatera animatu zinen iaz. Nolatan?

Beste lagun batekin batera ibili izan naiz aurretik beste udalekuetan, eta berak bidali zidan eskaintza hezitzaileak behar zituztela, hain zuzen ere. Biok bidali genuen curriculum. Interesatzen zitzaidan euskara. Gehientsuena hemen horrela da, baina euskaraz zirenez, oso prest nengoen horretarako, eta hauek ibiltariak dira gainera. Egun batean toki batean hasten zara, eta bestean bukatu. Horrelakorik egin gabe nengoen aurretik, eta erakartzen ninduen.

«Begirale izan behar duzu, eta momentu txarrak badaude, baina zuk ere oso ondo pasatzen duzu»

Askotan agian toki batera joan eta han egonda erosoago izango dela esaten da, baina beste xarma bat eduki behar zuela horrek, eta horregatik animatu nintzen.

Nolako esperientzia izan zen?

Lehenengo urtekoa ederra. Gainera, koronabirusarekin kalean maskara jantzita ibili beharra zegoen, eta ez ditut gogoan zein betebeharrak gehiago genituen. Nik uste momentu batean duda egon zela egingo ote ziren ere. Toki desberdinetako jende asko joaten da; udalekuek ez da eskola batetik hogeit hamar pertsona joaten direla,

eta zirkulu itxia dela. Baina esperientzia izugarria izan zen. Hau jakinda, eta aurretik beldur horrekin joanda, oso ondo ateratzen ziren. Ibiltaria zenez denbora asko ematen genuen kanpoan, eta oinez. Askatasun gehiago ere bagenuen lasaiago ibiltzeko, eta jendearekin hainbeste harreman ere ez genuen izan. Parte hartzaileekin, umeekin, eta beste begirale





Xumai Aizpuru Zinkunegi
alegiarra bigarren urtez ariko
da hezitzaile lanetan. **E. MAIZ**

taldeekin dena oso ondo joan zen. Tratu oso ona eman ziguten.

Zein izan zen zure egitekoa egun horietan?

Hasi aurretik, egun batean, denok geratu ginen. Nik ez nituen ezagutzen beste begiraleak, eta erabat berria zen niretzako. Hiru batek elkar ezagutzen zuten, eta guztira zazpi bat begirale ginen. Iazkoa laugarren urtea zen, eta begirale batzuk aurretik ume bezala ibilikoak ziren, baina praktikan bezala zeuden, eta orduan ezagutzen ziren. Bi ziren praktiketakoak, eta haien begirale izana zen bat. Orduan, egun bat jarri genuen denok elkar ezagutzeko, eta pixka bat antolatzeko. Zer ibilbide egin behar genuen itxita zegoen.

Beste guztia antolatu behar?

Herri bakoitzean egoten ginenerako udaletxeekin edo elkarteekin egin beharreko ekitaldi edo egitas-

moren bat bazen gutxi gorabehera lotuta eman ziguten, baina gero arratsaldeak lotzeko zeuden. Lotu beharreko asko, eta zer gauza egin genitzakeen lotu genituen. Gauetako gaubeilak ere guk egiten genituen, eta bidean zehar ere gainean egotea zen gure lana. Umeak ere ez ziren umeak. Nik umeak esaten dut, baina batzuk ni baino hiru urte gazteagoak ziren.

Lan asko eman zizueten?

Gazteak formalak ziren. Adina da, eta gauza batzuk egiten zituzten, baina egin behar zituztenak ziren.

Euskaldun gisa kontzientziatzeko, indartzeko eta ahalduntzeko gune bezala antolatzen dituzte Salto! topaketa hauek. Euskararen erabilera aldetik zer esango zenuke?

Euskaraz. Euskaraz, denak. Ez zen atentziorik deitu beharrik izan. Berrogeita hamar gazte ziren, eta kasik denak euskaldunak ziren izatez, eta batzuk erdibide horretan zeuden, eta agian momenturen batean bi gaztelaniaz hizketan, baina atentzioa deitu behar izateraino beste ez. Ez zegoen esku-hartu beharrik. Euskaraz hitz egitea zen normala. Ni beste toki batzuetan egon naiz, eta zentzu horretan alde handia zegoen. Udaleku hauetan euskararen erabilera gehiago nabaritzen zen. Ez zen behartu behar, natural ateratzen zen.

Euskarak badu garrantzia udaleku hauetan.

Uemako bi pertsona etorri ziren udalekuetara. Uematik etorrita euskararen egoera zein den ezagutzera eman zuten, eta kontzientziazio lana egin zuten. Beharra dagoela, egin behar dela eta interesa badagoela euskaraz egiteko. Bi ekitaldi antolatu zituzten, eta zein ahulgune dauden eta zein esparrutan azaldu zieten gazteei. Lantzeko edo eragiteko modu ezberdina izan zen, ez zen bakarrik euskaraz egin behar dela esatea. Kasu honetan bi ekitaldiren bidez laguntzen edo bultzatzen zen.

Euskal Herri osoko gazteak ziren.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

Bai. Eta hitz egiten aritu ginen aukeraketa egiten aritu zenarekin, eta esaten zigun, berez, Azpeitiko eta Larrabetzuko eskolatik berrogeita hamar plaza itxi zitzaketela. Jendea bazegoela, baina ez zela hori helburua. Askok jota herri bereko bi gazte zeuden, eta normalean bakarra. Gipuzkoatik, Amezketatik; Nafarroako Lesaka; baina baita Nafarroan hegoalderagokoa ere, Bizkaiko herri ezberdinetatik, eta Arabako Aramaiotik. Baldintzetako bat herriak Uemako par-taide izan behar duela da, eta hori nabaritzen da.

Gazteek zer-nolako jarrera zuten euskararekiko edo bazuten kezkarik?

Kontziente ziren, eta bai euskara eta baita beste gai batzuekiko ere. Pentsarazten duten udalekuak dira. Apuntatzen zaren momentutik ere, badakizu nora apuntatu zaren. Orduan, interesa bazegoen euskararekiko, eta baita gaur egungo gazteen beste hainbat kezkariekiko ere. Adibidez, gogoratzen naiz Ondarroan geundela Ondarroako gaztetxean hitzaldi bat eman zigutela. Garai hartan Ondarroan bertan ludopatia arazoak zituzten, eta ludopatiaren inguruko kezka eta arazo asko zituzten. Horren inguruan gazteei nola eragiten dien aritu ginen, eta ekitaldi horietan asko parte hartzen zuten, eta interesa zeukaten. Bai euskararekiko, baina gehiagorako ere bai; hau da, gizarteko beste gai batzuekiko ere bai.

Zer eman zizun begirale lanetan aritzeak?

Aurrena lagun talde bat eman zidan. Agian ez da hainbeste denbora, baina egoten zarena trinkoa izaten da. Astebete da 24 orduz batera, eta, noski, antolamendu aldetik dena ez da ondo ateratzen. Nahiz eta taldea nahiko formala izan zen, beti daude momentuak eta ezbeharren batzuk, eta zaudenen babesa edukitzea asko eskertzen da. Harreman es-tuak sortzen dira. Era berean, gazte horiekin ibili izanaren poza ederra da. Begirale izan behar duzu, eta momentu txarrak badaude, baina orokorrean zuk ere oso ondo pasatzen duzu. Zu ere edozein ekitalditan beste bat zara. Zuk, gainera, normalean ez duzu jakiten zerbait kontatu behar badizute, zer kontatu behar dizuten. Leku desberdinetako hain-beste jende elkartzean, herri batzuk baziren ere ez nekien eta aniztasun horrek jakintza handia eman zidan. Kontzientzia maila handiagoa hartzen duzu.

Zerbait izango da; izan ere, aurten errepikatu egin-go duzu, ezta?

Bai. Kasu honetan, ez nuen curriculum bidali behar-rik izan. Aurten dinamika pixka bat aldatuta egin nahi dituztela, eta askoz ere handiagoan, baina le-hengo urteko antzekoa izango da, eta interesa zuten. Hezitzaile moduan jende gehiago hartu beharra dau-kate, gazteak ere gehiago direlako. Gune bat eduki ahal izateko nola funtzionatzen duen dakien jendea nahi zuten, eta galdetu egin zidaten niri interesik ba-

ATARIAN jarrita Goierri
eta Urola Kostako
Hitza egunkarietan toan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.

nuen. Galdetu zidaten bezala, baietz esan nuen. Gainera banekien batzuk baietz esatekotan zirela, eta haiekin berriz egoteko aukera dut. Badakit atzetik zer dagoen ere, eta hori babesten dut, eta iruditzen zait honen alde egin beharra dagoela, eta horregatik izan da.

Aurtengorako jada izen-ematea bukatu da, baina hurrengo urteetara begira, zergatik parte hartu behar da topaketa ibiltarian?

Gazte bezala, lehenengo eta behin, gazteentzat eskaintzen duten eskaintza nik ez dut besterik ezagutu hain helduentzat, 14-18 urte artekoentzat da. Askotan ematen du adin hori ez dela jada udalekuetara joateko, baina, benetan ikaragarri ondo pasatzen da. Agian pentsatu dezakete «niri esaten zer egin behar dudan», ez da horrela, ez da guztia nahi duten bezala, baina beraien askatasuna dute gauzak erabakitze-ko eta entzun egiten zaie. Esango nuke joan ziren guztiek izugarrizko esperientzia eduki zutela; jende berri pila bat ezagutzen duzu, oso urrutiko jendea eta oso jende desberdina. Hitz egiteko moduan bertan ere izugarri nabaritzen zen zenbat hitz egiteko modu dauden, eta badakit, gerora ere beraien artean geratu direla, eta harremana mantendu dutela. 12 urterekin joaten baldin bazara harremana mantentzea zailagoa da, baina 16-17 urterekin, gero kanpoan ere, WhatsApp-a dela eta, harremanetan jarraitu dute. Zergatik? Momentu oso onak pasatzen dituzulako, eta lagun berriak egiten dituzulako. Eta gainera euskaldunen eta euskararen alde baldin bazaude, horretan laguntzen duzulako ere bai.

Eta begirale moduan?

Gauza askorengatik. Gauzak erraz jartzen dizkizute begirale izateko, eta gutxi gorabehera bideratuta dago dena. Hemendik aurrera zer izango den ezin dut esan, baina begirale arteko giroa lehengo urtean behintzat oso ona izan zen. Denok ere euskaldun eta nahiko antzekoak ginen, eta elkarrekin ulertzeko erraztasun handia zegoen. Ondo pasatzen duzu eta begiraleak beraiek ere lagun egiten dituzu.

EHUN GAZTE EUSKARAK LOTUTA



Euskarak eta gozamenak elkartuko ditu Euskal Herriko ehun gazte ekainaren 27an. Zazpi egunez, Gipuzkoa eta Nafarroako lurretan ibiliko dira Salto! Udalerrri Euskaldunetako Gazteentzako Topaketak udaleku ibiltarian. Aurtent, bi zutabetan banatu dituzte topaketa ibiltariak, eta 50 gazte Etxarri Aranaztik abiatuko dira, eta beste 50 gazteak Tolosatik, gero guztiak, ekainaren 30ean, Leitzan elkartzeko. Uztailaren 3a izango dute elkarrekin egoteko azken eguna.

Gazte mordo batek emana du izena, eta Uema-ko udalerrietako herri ezberdinetako gazteek osatuko dute taldea. Horietatik 50 gaztek Tolosaldea ezagutzeko aukera izango dute. Lehen egunean Tolosatik Alkizarako bidea egingo dute. Bigarrenetan, Alkizatik Leaburura, eta Leitzara iritsi aurreko azken etapa Leaburutik Berastegira bitartekoa izango dute.

Honela, topaketa hauei esker, udalerrri euskaldunetako gazteek elkar ezagutzeko aukera izango dute. 2004 eta 2007 urte artean jaiotakoei zuzendua da, eta helburu nagusia euskaldun gisa kontzientziaztea, indartzea eta ahalduntzea dute. Udaren atarian, norbanakotik komunitatera salto egiteko bidea izango dute. Aisialdiarekin eta euskal kulturarekin lotutako egitarau erakargarriarekin, gazteek arnasestuetatik arnasguneetarako bidea egingo dute, eta inertziatik kontzientziara pasako dira.



**ANE
AMUNDARAIN**
BIOMEDIKUNTZAN
DOKTOREGAIA

Fagoterapia: birusak sendatzeko erabiltzen direnean

Infekzio bat duzuenean, tratamendu modura antibiotikoa beharrean birus bat hartzeko prest egongo al zinatekete? Bada, ez da ideia hain zorua, horixe baita fagoterapiaren oinarria: bakterioek eragindako infekzioak sendatzeko bakterioak hiltzen dituzten birusak erabiltzea, hain zuzen. Beharbada, pandemiak hain luze jotzen duen honetan ez zaudete birusak begi onekin ikusteko prest, baina agian, testu hau irakurri ondoren birusei estimu pixka bat gehiago izango diezue.


Oinarrian, birusek mota guztietako zelulak infektatu ditzakete: animalienak, landareenak, onddoenak, algenak... eta bakterioak ere bai. Zehazki, bakterioak infektatzen eta hiltzen dituzten birusei bakteriofago deritzaie (hortik fagoterapia kontzeptua). Bakteriofagoei (fagoak hemendik aurrera) buruzko lehen lanak XX. mende hasieran argitaratu ziren, bakterioak gaixotu eta hiltzen zituzten birusak aurkitu zirenean. Honela, birus hauek giza gaixotasunak eragiten zituzten bakterioak akabatzeke tratamen-

du modura erabiltzea planteatu zen. Oraindik antibiotikorik ezagutzen ez zenez, 1930. hamarkadan fagoterapiak arrakasta izan zuen hainbat gaixotasun infekziosoren tratamenduan. Hala ere, beraien erabilerak hainbat zalantza sortu zituen, besteak beste oraindik fagoen biologia ulertzen ez zelako, tratamenduaren arrakasta ezartzeko kriterio ezberdinen erabileragatik eta fago prestakinak lortzeko teknika estandarizaturik ez zegoelako.

Era berean, 30 eta 40. hamarkadetan antibiotikoen garapenean emandako aurrerapauso izugarriek fagoterapia alde batera uztea eragin zuten. Izan ere, fagoen aldean, bereziki espektro zabaleko antibiotikoek aldi berean bakterio ezberdin askoren aurka egite-

ko gaitasuna eskaintzen zuten. Aldiz, fago bakoitzak bakterio mota jakin bat era espezifikoan infektatzen duenez, pausorik zailena infekzio bakoitzarentzako fago egoiak aurkitzea da. Gaur egun fago ehundaka batzuk ezagutzen badira ere, naturan 1031

«Bakterioek eragindako infekzioak sendatzeko bakterioak bakterioak hiltzen dituzten birusak hiltzea da fagoterapia»



(*milioi-milioi-milioi-milioi-milioi... Euskaltzaindia, nola esaten da?*) mota ezberdin aurkitu daitezkeela uste da. Hainbesteren artean, gaixotasun ugariaren aurkako fago egokiak existitu beharko dira, ala?

Azken urteotan, antibiotikoen aurkako erresistentzia mundu mailako osasun-arazoa bihurtu da. Hone-la, gure artean antibiotiko gehienek aurka erresistentiak diren gero eta bakterio gehiago dauzkagunez, erresistentzia garatu duten bakterio hauentzat tratamendu eraginkorrak garatzea ezinbestekoa bihurtu da. Antibiotikoen aldean, fagoen abantaila nagusia espezifikotasuna da; izan ere, fagoek ez dute bakterio itua ez den beste zelularik infektatzen. Eman dezagun, *Vibrio Cholerae* (kolera gaitza eragiten duen bakterioa) infektatzen duen fago batek *V.cholerae* bakarrik akabatuko du, gizakiarengan eta mikrobio-tako gainerako mikroorganismoengan inongo eragin

toxikorik izan gabe (pentsa, zuetatik zenbat egon zarete tripetatik gaizki antibiotikoak hartu ondoren?). Beraz, fagoen erabilera antibiotikoen aldean albotek nabarmen murrizteko aukera ederra izan daiteke.

Dirudinez, XXI. mendeak ahaztutako teknologia honen bigarren jaiotza ekarri du, herrialde gero eta gehiagotan beraien ikerketa eta garapenerako interesa sortu delarik. Hala ere, bakteriofagoen ozeanoan oraindik ur tantatxo bat besterik ezagutzen ez dugunez, ez da erokeria etorkizunean bronkitis baten aurka medikuak birus prestakinak aginduko dizkigula pentsatzea...

Iturria:

<https://microbioblog.es/fagoterapia-emplear-virus-como>

Non ukitu



MIKEL ARTOLA
GALTZAUNDIKO
KIDEA

Zabaldu berri dituzte Uemak eta Galtzaundik Tolosaldean egindako kale-neurketen datuak. Labur esateko, lau puntu egin du gora erabilerak eskualdeko herri handienetan —herriarren %80 bizi da han—. Aldiz,

herririk euskaldunenetan —euskaldunen portzentajea %80tik gorakoa dutenetan— jaitsiera antzematen da, beste lau puntu ia. Adin tarteari erreparatuta, berriz, haurrek eta gazteek egiten dute gehien, hamalau urtera artekoen kasuan ia %80ra iritsita, eta, hortik hogeita lau urterako tartean, %68ra. Gazte-helduetan %64k egiten du euskaraz. Heldu-nagusietan erdiek. Eta, azkenik, hirurogeita lau urtetik gorakoak dira gutxien egiten dutenak, %44 inguru. Lau eta laurogei zenbakiekin ni bezala maiteminduta ez dagoenak eskuragarri ditu beste zenbaki batzuk *Galtzaundi.eus* atarian, txukun asko azalduta, gainera.

Nondik begiratzen zaion, halako interpretazioa egin ohi da. Egongo da emaitza hobeen esperoan zegoenik, eta baita txarra uste eta pozik geratu denik ere. Neuk nahiago bigarrenen multzoan jarri eta kopak altxatuta txin-txin egin, ikastetxeen, gurasoen,

haurren, teknikarien, militanteen, Korrikaren, bertso-eskolen eta ahaztu zaizkidan guztien alde. Bejondeiela lanean ari direnei!

Kontuz mozkortu gabe, ordea: gutxi irauten du xanpainaren aparrak, eta guri ospakizunetarako utzi ziguten botilak zuloa omen —Sarasuak esana—. Horregatik bete behar da behin eta berriz, birikak bezala. Erabileraz gain, beste bi dira hizkuntzen osasunean eragiten duten aldagaiak: motibazioa eta ezagutza. Hala idatzi zuen Txepetx ikerlariak, eta ikuspegi horrekin gabiltza, batik bat, oraindik ere. Obsesioak izaten ditu aldi bakoitzak, eta gu batez ere erabilerarekin tematu gara azken aldian. Ez da arrazoirik falta, egia esan.

Dena den, beti izaten da norbait tabernan punta



atera behar duena, eta hainbeste ezagutza eta erabilerarekin motibazioa ahaztu xamar ote daukagun nago. Txepetxek hizkuntzaren bizia izan zuen ikergai, eta handik atera zituena ondoren biziaren hizkuntza ulertzeko gakoak. Alderantziz ere egin liteke agian. Andre Rochais pedagogoa helduen hazkuntza

pertsonala izan zuen ikergai, galdera nagusi bat akuitu hartuta: non ukitu behar da pertsona hazkuntza prozesua abiarazteko? Hizkuntzara ekarriko nuke galdera: non ukitu behar da pertsona euskararantz abiarazi edo hari eutsi diezaion?



Graduatu ondorengo lorpena

Unibertsitate Ministerioak EHUKo lau graduatu saritu ditu karrera amaierako sari banarekin eta horietako bi eskualdekoak dira; Abaltzisketako Janire Otamendi eta Berrobiko Maddi Dorronsoro.

Josu Artutxa Dorronsoro

Urtero, Unibertsitate Ministerioak unibertsitate ikasketak bikain egin dituztenak saritzen ditu Unibertsitate Hezkuntzako Karrera Amaierako Sariarekin. Azken edizioan, 2016-2017 ikasturtean graduatu zirenei dagokienean, Euskal Herriko Unibertsitateko lau tituludun daude 171 sarituen artean, eta horietako bi eskualdekoak dira. Abaltzisketako Janire Otamendi Jauregik (Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua) Zientzien eta Ingeniaritzaren eta Arkitekturaren adarretako bigarren saria eskuratu du eta Berrobiko Maddi Dorronsoro Olamusuk (Gizarte Antropologiako Gradua) Gizarte eta Lege Zientzien adarreko hirugarren saria.

Hau ez da Otamendik lortzen duen lehen aintzatespena. Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan bikaintasunez graduatu zen; izan ere, promozioko espediente akademikorik onena berea zen eta, horregatik, Kutzaren Ikasketa Amaierako Sarietako bat eman zioten. Bere GRALak bigarren saria lortu zuen Gipuzkoako Ingeniarien Elkargoak ematen duen XVI. Felix Sopelana Memorialean. Graduatu ondoren, Kontrol, Automatizazio eta Robotikako Ingeniaritzako Masterra egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta promozioko espediente akademikorik onena lortu zuen.

Masterra amaitzeaz zegoela, Indar Electric SL enpresan hasi zen lanean. «Urtebete egin nuen bertan eta oso esperientzia interesgarria izan zen; asko ikasi nuen», azaldu du. Baina, Unibertsitate Ministerioak emandako beka batekin, doktorego tesi bat hasteko aukera sortu zitzaion, «eta aukera hori aprobetxatzea erabaki nuen». Doktoregoa Euskal Herriko Unibertsitateko Sistemen Ingeniaritza eta Automatika Sailean egiten ari da.

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean Gizarte Antropologiako Gradua bikaintasunez amaitu eta Kutzaren Ikasketen Amaierako Saria eskuratu ondoren, Dorronsoro Eskoziara joan zen ikasten jarraitzera. Gizarte Antropologiako ikerketa master bat egin zuen Aberdeengo Unibertsitatean, eta hura ere bikain amaitu zuen. Ondoren, *The Leverhulme Trust* beka jaso zuen Edinburgoko Unibertsitatean Gizarte eta Politika Zientzietako beste ikerketa master bat egiteko. Ondoren, Europar Batasuneko boluntario izan zen European Solidarity Corps (ESC) elkartean, Materan (Italia). Eta iaz Euskal Herrira itzuli zen, Labayru Fundazioako ikertzaile gisa lan egiteko. Bertan, azken hilabeteetan, Gipuzkoako inauterien katalogoa egin du Eusko Jaurlaritzarentzat.



**«Lau urteko lanaren
aintzatespena da,
esfortzuaren
errekonozimendu bat»**

MADDI DORRONSORO ETA JANIRE OTAMENDI

UNIBERTSITATE MINISTERIOAK SARITUTAKO IKASLEAK

Pasa den urteko udan, 2013tik 2017ra bitarte, unibertsitatean egindako lanen dokumentuak biltzen aritu ziren Dorronsoro eta Otamendi; memoria ariketa horrek saria izan du, biek ere, espero ez zutena.

Josu Artutxa Dorronsoro

Berez, 2017an amaitu zituzten lau urteko ikasketa graduatan egindako lanengatik lortu dute Unibertsitate Ministerioaren errekonozimendua Maddi Dorronsorok (Berrobi, 1997) eta Janire Otamendik (Abaltzisketa, 1997). Aintzatespenaren berri, ordea, azaroan jaso zuten. Sari honen garrantziaz, bakoitzak egindako ibilbideaz eta datozen urteetarako aurreikuspenez hitz egin dugu beraiekin.

Nola izan zenuten sariketa honen berri eta zer egin behar izan zenuten?

Maddi Dorronsoro: Uztailan mezu bat jaso genuen, Unibertsitate Ministerioak antolatu ohi duen lehiaketara aurkezteko aukera genuela esanez; gure unibertsitate-ikasketetako promozioetako kalifikazio oneak lortu genituen ikasleak izan ginelako egin ziguten proposamena. Orduan, zenbait dokumentu bildu eta horiek Ministerioari aurkeztu behar genizkion, ziurtagiri modura, hala nola, kalifikazioak, unibertsitatean egondako urteetan egindako ikerketa lanen edo proiektuen txostenak nahiz hizkuntza-titulazioak.

Harrigarria egin zait dokumentu horiek graduatu eta handik bost urtera eskatzea. Ez genekien lehiaketa bera existitzen zenik ere, eta beraz, sorpresa handia izan zen guretzat. Hala ere, lehiaketa publikoa zen, eta beraz, garrantzitsua zen horiek aurkezte, baldintza horien arabera ematen zituztelako gero puntuak. Azaroan jaso genuen emaitza eta hor jakin genuen sarituak izan ginel.

Dokumentuak biltzeko lana ez zen erraza izango, ezta?

Janire Otamendi: Ez. Izan ere, unibertsitatean egondako lau urteetan egindako lanak eta lortutako emaitzak aurkeztu behar genituen. Memoria ariketa bat izan da guretzat. Gogoratu egin behar genuen urte haietan egindakoez, eta badaezpada ere, bidali aurretik, datak ondo jarrita zeudela begiratu behar genuen.

Dorronsoro: Nire kasuan, gainera, une horretan Italian nengoen boluntario modura lanean. Amari zenbait mesede eskatu nizkion: «Ez dakit nongo karpetan dagoen dokumentua atera, eskaneatu eta bidali ieza-dazu», esan nion behin baino gehiagotan. Hortaz, hemendik eskerra eman nahi dizkiot berari ere.

Zuen kasuan, azaldu dizue zergatik eman dizkizuen sariak?

Otamendi: Guri eman diguten puntuazioaren zati bat batz besteko kalifikazioari dagokiona da; bestetik, tituluak lortzeagatik edo proiektu nahiz lan desberdinak burutzeagatik eman dizkigute puntuak. Horrela, guztira zenbat puntu lortu ditugun jakin ahal izan dugu; lehiaketara aurkeztutako beste ikasleek zenbat puntu lortu dituzten ere ikusi ahal izan dugu, eta gero, kalkuluak eginda jakin dugu saridunak izan gara.

Zer sentitzen da horrelako sari bat jasotzean?

Otamendi: Lau urte horietan egindako lanaren aintzatespena da saria, esfortzu guztiaren errekonozimendua bat. Poz handia sentitzen da; are gehiago, saria jasotzea espero ez duzunean. Aurreko urteetan saria eskuratu zuten ikasleek zein puntuazio lortu zituzten ikusten aritu nintzen ni; hori dela eta, ez nuen uste

saria lortzeko aukera izango nuenik.

Dorronsoro: Nik ere ez nuen espero. Pentsatu nuen Espainiako Estatu osoan hiru sari bakarrik banatzen zituztela, eta beraz, ezinezkoa izango zela horietako bat lortzea. Hala ere, ikasketen arabera, multzo ezberdinetan banatzen dituzte ikasleak, eta horietako bakoitzean banatzen dituzte hiru sari. Orduan, pentsatu nuen aukera txikiren bat egon zitekeela, eta noski, merezi zuela paper zaharrei hautsa kentzen hasia.

Nire kasuan, sentsazioa arraroak izan da. Bost urte beranduago sentitu dut orduan senti nezakeen poza. [Barreak]. Gure ingurukoak ere komunikabideetan agertu garelako izan dute guk lortutakoaren berri. Horietako askori ere arraroa egin zaie sari hau orain ematea. Denborarena ez da txantxetako kontua. Pentsa! Baliteke ikasleren batek bost urte hauetan bere helbide elektronikoa aldatu izana, eta

beharbada ez da lehiaketaz jabetu. Badirudi meritua kentzen ari naizela neure buruari, baina ez da hala; oso eskertuta nago sari hau lortu izanagatik.

Eta orain, zertarako balio dezake sariak edo zertan lagundu zaitzakete?

Dorronsoro: Batetik, curriculumak aberasteko, noski. Bestetik, diru-kantitate bat irabaztea ere suposatzen du. Hala ere, martxa honetan bost urte barru jasoko dugu ordainsaria. [Barreak]. Baina bereziki, oraingoz behintzat, propaganda egiteko balio izan du. Zenbait komunikabideetan agertu dira gure izenak, eta unibertsitateko irakasleen zorion mezuak ere jaso ditugu.



«Ingeniaritzak, eguneroko arazoei aurre egiteko pentsamendu mota bat garatzen lagundu dit»

JANIRE OTAMENDI

Otamendi: Hori da. Lehen genituen kontaktu horiek berreskuratzea eragin du; aldi berean, baita gu geu gogobetetzea ere. Sari hau lortzeak ez du aparteko ezer esan nahi, ez gara ez hobekak ez txarragoak. Aldiz, lortutakoaz jabetu eta kontziente izan behar dugula iruditzen zait.

Zu Janire, Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzan graduatu zinen. Gustura ibili zinen?

Otamendi: Zalantza handiak izan nituen ikasketak aukeratzeko garaian. Azkenean, baina, ingeniaritzaren aldeko hautua egin nuen, eta oso gustura aritu nintzen. Jende oso ona ezagutzeko aukera izan nuen, bai ikaskide modura, baita irakasle modura ere. Masterra ere egin nuen, eta orain doktoregoa egiten ari naiz; beraz, bada gustuko dudana ikasgaia.

Azken urteetan akaso gauzak aldatu diren arren, oraindik ez da oso ohikoa emakume batek ingeniaritza-ikasketak egitea.

Otamendi: Aitortu beharra dut oso emakume gutxi aritu zirela nirekin batera ikasgelan. Irakasleei zego-kienez ere, emakumezkoak nahiz gizonezkoak genituen. Baina ni ez nintzen kontziente horretaz. Kanpotik begiratuta, eta kontatzen hasita, orduan bai oharitzen nintzela oso gutxi ginela. Aurten, doktoregoa egiten ari naizela eta, ingeniaritza industrialaren kasuan, unibertsitateko maila ezberdinetako ikasgelatan egoteko aukera izan dut, eta ohikoa baino emakume gehiago zeudela jabetu naiz; batzuetan ia erdiak ziren emakumeak. Harritu egin nau, eta baita poztu ere, eboluzio bat egon denaren erakusgarri delako.

Sari hau irabazi ondoren, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolatik deitu ninduten. Ingeniaritza ikasketak egin dituen emakume batek horrelako sari bat irabazteak, ondorengo belaunaldiei eragin diezaiekeela iruditzen zitzaielako, horiek kontzientziazteko. Nik bertan ikasi nuen, eta asko poztu ninduen kezka horri heldu ziotela jakin nuenean.

Gustuko duzun ikasgaia dela aipatu duzu. Baina zertarako baliu izan dizu zuri ingeniartzan graduatzeak?

Otamendi: Ikasten duzun guztiak izaten du eragina zure bizitzan, bai esperientzien aldetik, baita ezagutzaren aldetik ere. Ingeniaritza ikasteak, egunerokotasunean arazoak planteatzeko garaian, pentsamendu mota bat garatzen lagundu dit, pixka bat haratago joaten, ingeniariak duzun buru karratu horren barruan. [Barreak].

Zientziak oso gustuko ditut, eta kuriositate handia izaten dut gauzek nola funtzionatzen duten jakiteko. Orain, egiten ari naizen doktoretza tesian, bio-ingeniartzan aplikatutakoan, hainbeste entzuten den inteligentzia artifiziala erabiltzen ari naiz. Horri esker, ohartu naiz ikasten ari naizen teknikak alor desberdinetan erabili daitezkeela.

Saria jaso berritan, honakoa adierazi zenuen: «Zenbait urtez ikasten egon ondoren, jabetu naiz bai enpresa munduko, bai ikerketa karrerako lan baldintzak ez direla oso onak, eta hori nahiko frustragarria da». Zer dela eta?

Otamendi: Horrenbeste urtez ikasten aritu ondoren, ez dakizu zerekin egingo duzun topo. Lehen urteetan



«Ezagutzen dugun errealitatea ez da unibertsala, eta modu asko daude gauzak sinisteko, ulertzeko edota egiteko»

MADDI DORRONSORO

izaten dituzun lan baldintzak akaso ez dira zuk espero zenituen bezalakoak, ez behintzat zuk nahiko zenituzkeenak bezain onak. Hori da frustragarriena nire ustez.

Dorronsoro: Oraindik gaztea bazara eta esperientziarik ez baduzu, ikasketa ugari pilatzea ezinbestekoa dela sinestarazten dizute. Askotan kluxe bat da, baina gero bete egiten da. Urte luzez ikasten aritu ondoren, esperientzia eskatzen dizute, baina hori ezinezkoa da. Hasieran entzun besterik ez duzu egiten, baina lan mundura jauzi egiten duzunean, jabetzen zara benetan hala gertatzen dela.

Otamendi: Normala ere bada. Nik ez dut esaten enpresa batera sartzen zarenean lan baldintza guztiek ezin hobeak izan behar dutenik; are gutxiago, enpresa horretara ikastera bazoaz. Hala ere, egia da urte luzetako prozesua dela egonkortasuna topatzea.

Zu, berriz, Maddi, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fa-

kultatean Gizarte Antropologian graduatu zinen. Zer moduzko urteak izan ziren?

Dorronsoro: Ikasle gutxi ginen. Lehen mailan, filosofia ikasketak egiten zituztenekin batera geunden ikasgelan, eta guztira, 60 bat ikasle izango ginen. Bigarren mailatik aurrera, 20 ikasle inguruk jarraitu genuen antropologia ikasketekin. Eta orduan, laugarren urterako oso talde txikia ginen, eta irakasleekin gertuko harremana izaten genuen; izenez ezagutzen ginen. Hori asko eskertzen da, eta zentzu horretan, pribilegiatuak izan ginela esango nuke, onerako eta txarrerako.

%87

2021eko lanbide-datuak

Eustatek emandako datuen arabera, 2021ean, 25 eta 44 urte bitarteko biztanleen %87,6 aritu zen lanean. 16 eta 24 urte bitartekoen artean, berriz, %29,1. Bietan ere, gizonezkoen portzentajea altuagoa zen emakumezkoena baino, alde txikiarekin.

Gero, Eskozian bi master burutu zenituen, eta Europar Batasuneko boluntario ere izan zinen, Italian. Zer moduzko esperientziak izan ziren?

Dorronsoro: Graduatu ondoren, ingelesez ikasten jarraitu nahi nuen. Atzerrira joateko ilusioa nuen, eta

zenbait gomendio jaso ondoren, Aberdeenera eta Edinburgora joan nintzen, ikerketa master bana egitera. Nire gustuko gai bat aukeratu eta hutsetik hasita garatzeko aukera izan nuen, nire ikerketa propioa gauzatu ahal izateko. Oso gustura aritu nintzen.

Behin lan horiek amaituta, eta lasai egotea zer den ez dakidanez, Europar Batasunean boluntariotza lana egiteko izena ematea erabaki nuen. Matera hirian egon nintzen, sei hilabetez, migratzaileei laguntzarako elkarte txiki batean. Lehenago, landu izan nuen 'migratio irregularra'-ren gaia, baina betidanik nuen jakin-mina errealitatean hori nolakoa zen eza-gutzeko. Asko irakurri izan nuen horri buruz; bertatik bertara bizitzea, ordea, erabat ezberdina da. Boluntario asko ezagutu nituen, eta gure proiektuak elkarrekin partekatzeko aukera izan genuen. Handik bueltan, Gipuzkoako Inauterien Katalogoa egiten aritu naiz, Labayru fundazioan.

Janireren kasuan bezala, ikasketa hauek burutzeak lagundu ditu?

Dorronsoro: Bai. Pertsonalki ikaragarri eragin dit antropologiak; arrastoa utzi dit gauzak ikusteko eta ulertzeko garaian. Janireren kasuan bezala, zenbait arazoren aurrean, beste modu batean pentsatzen lagundu dit. Aukera eman dit planteatu ere egiten ez ditugun gauza asko beste perspektiba batetik gain-begiratzeko, horiek zalantzan jartzeko alegia. Gauza asko ziurtzat hartzen nituen lehen, eta hori aldatu egin da.

Beti gustuko izan ditut Giza Zientziak, eta jakin-min handia izan dut horien inguruan. Kasu horretan, antropologiak erreminta batzuk ematen dizkizu zer-bait uste dugun bezalakoa ez dela ohartzeko. Askotan, oso garrantzitsua izaten da gauden tokitik pauso bat atzera eman, eta aurrean duguna ikuspegi kritiko batekin aztertzea. Ezagutzen dugun errealitatea ez da unibertsala, eta gauzak sinesteko, ulertze-ko edota egiteko modu asko daude. Ondorioz, hausnarketarako ateak zabaldutik antropologiak, baita une jakinetan zein hitz erabili ondo pentsatzeko ere.

2021EKO LANBIDE-JARDUERA DATUAK (IKASKETEN ARABERA)

GINARRIZKO IKASKETAK EDO GUTXIAGO

- **Guztira.** %35,4.
- **Gizonezkoak.** %45,9.
- **Emakumezkoak.** %26,8.

BIGARREN MAILAKO ETA ERDI-MAILAKO IKASKETAK

- **Guztira.** %57,2.
- **Gizonezkoak.** %60,9.
- **Emakumezkoak.** %52,9.

GOI-MAILAKO IKASKETAK

- **Guztira.** %79,2.
- **Gizonezkoak.** %79,1.
- **Emakumezkoak.** %79,3.

Iturria: Eustat.

Zeintzuk dira datozen urteetan dituzuen asmoak?

Otamendi: Ni doktoretzako bigarren ikasturtean nago, eta hori amaitzea da orain dudan helburua.

Baduzu irakasle izateko asmorik?

Otamendi: Aukera posibleetako bat da, bai. Bestela, gustura egingo nuke lan ikerketa zentro batean edo enpresa batean. Orain asko ikasten ari naiz, eta etorkizunera begira behintzat ez dut aterik itxi nahi.

Zuen iritziz, zer egin dezake gizarteak aurrera begira, aipatu dituzuen baldintzak eta egoerak aldatzeko?

Dorronsoro: Oro har, lan munduari dagokionez, prekaritate handia dago gazteen artean, eta ez da ez gogo faltagatik, ezta prestakuntza faltagatik ere. Gaur egungo gazte askok, graduatu ondoren, master bat egiten dute, eta gehienek hiruzpalau hizkuntza menperatzen dituzte, eta berdin dio zein alorretan. Lanbide Heziketaren kasuan, erdi-mailako edo goi-mailako graduak egiten dituztenak ere prestatutako ikasleak dira.

Otamendi: Formula ugari daude gazteak lan mundura sartzeko bideratutakoak. Hori oso ondo dagoela iruditzen zait. Hala ere, egonkortze bat lortu arteko prozesua oso luzea izaten da. Ondo dago formulak egotea, baina beharrezkoa da ere horiek ondo erabiltzen jakitea.

Zer esango zeniekete belaunaldi berriei, ikasketen eta lan munduaren inguruan? Aholkuren bat akaso?

Dorronsoro: Duela 30-40 urteko belaunaldiarekin alderatuta, gure gurasoenekin alegia, gaur egungo egoera erabat bestelakoa da. Aldaketa

«Baliteke askok bilatutako lanpostua gustuko ez izatea, eta mendian behorrak zaintzea nahiago izatea; oso ondo iruditzen zait»

JANIRE OTAMENDI

ikaragarria gertatu da; ulermen faltan ere nabaritzen dut hori. Askok ez dute ulertzen nola den posible, bere semea edo alaba modu batera edo bestera prestatuta egonda ere, lanpostu egonkorra aurkitu ezinik ibiltzea. Bestalde, badira gazteak egonkortasun hori topatu dutenak eta oso gustura daudenak. Askotarikoa da panorama hemen; beste leku

batzuetan, erabat bestelakoa da.

Otamendi: Hori kontuan izanda, ez kikiltzeko eta gustukoen dutena egiteko gogoari eusteko esango nieke, urte luzez ariko baitira gero lanean. Ez dute etsi behar.

Dorronsoro: Ikasketetako urte horietan, izan bi, lau, bost edo zazpi, gustuko dutena egin dezatela. Gero, beti izango dute tarteak gustuko ez duten hori egiteko.

Otamendi: Ikasketak amaitu ondoren, baliteke askok bilatutako lanpostua gustuko ez izatea, eta mendian behorrak zaintzea nahiago izatea. Oso ondo iruditzen zait.

Dorronsoro: 18 urterekin gauzak zuriak edo beltzak ikusten ditugu. «Hau ikasiko dut eta gero honetan egingo dut lan», pentsatzen dugu askotan. Gero, baina, hasten zarenean edo amaitzera zoazenean, baliteke ez gustatzea. Bide ugari egoten dira, baina guz-

tiak ez dira izaten zuzenak; bidezidor asko daude, eta askotan ez dakizu zein den amaiera. Badira ere existitzen ez zirela pentsatzen ditugun lanpostuak.

Otamendi: Urteek aurrera egin ahala, lan egiteko aukerak handituz doazela jabetzen zara; hau da, lanpostuen sorta askotarikoa dela. Beti egongo da zerbait gustuko izango duzuna eta noizbait aurkituko duzuna.

«Bide ugari egoten dira, baina guztiak ez dira izaten zuzenak; bidezidor asko daude eta askotan ez dakizu zein den amaiera»

MADDI DORRONSORO



JOSU OZAITA
KMK
KOORDINAZIOA

Hegoak ebakitzen

Bada nerabezarotik gazte izatera pasatzea erakusten duen igarotze erritua: Kilometroak eta Euskal Herriko beste ikastolen lau jaietan, «Gora Euskadi» txapela, praka motz eta motxila erabiltzetik, bakeroak jantzita joatearena. Garai haietan katxiak eskuz esku pasatzen genituen, jakinda, diru hura herrigintzara joango zela, kontzienteki hartutako erabakia, litroak egin ez ditugun belaunaldikoak gu. Festa eta giro, Euskal Herria sentitzen genuen atmosferan, hegan egiten genuen beste hainbat jai eta ekimenetan bezala, komunitate baten parte, emozioak poroetatik sartzen ziren, bihotzeraino; betiko.

Katastrofea zabaltzeko zalea ez banaiz ere, baiko-rra izanagatik, naziotasun giroan epel-aldi eta hozte handia nabari dira. Euskadi «naturalizatzen» ari dela dirudi, hegalak moztutako herria. Nafarroaz hitz egitean, probintzia bakarraz aritzen da asko, eta iparralde, «zer da hori?». Irudipena dut, Euskal Herria hitza, bere sakontasun osoarekin, aho txikiarekin erabiltzen dugula, lotsati; uzkur. Bestetik, «aberri egunak» ez gaitu erakartzen, ikastetxeetan hiru probintzietako lurraldea irakasteen ez dugu protesta-tzen, gure ereserkiak zein izan behar duen eztabaida eternalak ditugunean...



Hala ere, herriak aspaldi erabaki zuen *Txoria txori* dela ereserkia, hau entzun daiteke parrandetan, manifestetan, edozein ekitalditan, futbol zelaietan, eta hamaika bertsio egin dizkiete Sonakaytik hasi eta Etsaiak talde arteko abaniko zabalak. Ez da Euskal Herria hil, erresistentziazatik eraikuntzara igarotzeko garaia da ordea, eta jarraitu dezagun Euskal Herriari eduki eta balio berriak ematen, ekimen gaurkotuak sustatzen, gauzak berrinterpretatzen, inork esan ez dezan: «Herri zahar bat izan zen». Eta horretarako, hegoak ez ebakitzea ezinbestekoa izango da. Agian, Kilometroak hauetarako «Gora Euskal Herria» txapelak atera beharko ditugu.



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

DASTATU GURE UZTA BERRIA

AURTEN OSTIRAL
EGUERDIETAN ERE
ZABALIK!

TOLOSATIK AUTOBUSA

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64

ISASTEGI.COM



MARRAZKI LEHIAKETA

13 urte bitarteko gaztetxoentzat



KORRIKA. EUSKARA. PARTE-HARTZEA

Hitz hauek entzutean burura datorkizuna marraztu eta irabazi sari bikainak!

SARIAK

'Kuikui',
Pirritx, Porrotx
eta Marimototsen
ikuskizunerako
4 sarrera.



Studio Acrylics kutxa



Korrikako materialez
osaturiko sorta



ataria
www.ataria.eus © 107.6 fm

Parte hartzeko eta informazio gehiagorako:
Ataria.eus - Epea: Apirilak 7, 11:30ak arte

**Arurako
Atakola**

ARTEKA

**æk
22.korrika**

Ukraina



**MANEX
GURRUTXAGA
MUÑAGORRI
SOZIOLOGOA**

Hilabete pasatxo da errusiar tropak Ukrainan sartu zirela eta hilabete hone-tan, bat-batean, telebistako albistegiak zein prentsako lerroburu nagusiak bete ditu gerrak, Pandemiari lekua kenduz. Modu horretara, Putinek hartu du gaizkiaren sinbolo den eta denok gorrotatu behar dugun horren lekukoa. Pasa den udan gazteak gorrotatu genituen moduan eta ondoren txertatu gabeak, orain Putinen txanda da. Beti aurkezten du boterearen diskurtsoak gaitzen erantzule simple eta identifikagarri bat, gainontzeko

guztiak bere analisi eta nahien arabera lerratzeko helburuarekin.

Hau ez da Putin eta bere politikak zuritzeko zutabe bat. Errusiar oligarkiaren ordezkari baita, politika kontserbadore eta atzerakoen defendatzaileria eta, gainera, errusiar bloke inperialistaren interes geopolitikoei erantzunez gerra bat abiarazi du, horrek dakarren sufrimendu guztiarekin.

Horrek, ordea, ez liguke haratago begiratzea oztopatu behar, lubakiaren beste aldean gauzak ez baitira oso bestelakoak. Ameriketako Estatu Batuetan buru duen mendebaldean, gerra testuingurua, amerikarren lidergotza eta bere politikak zein instituzioak indartzeko baliatzen ari dira. Esan nahi dut, Errusiaren inbasioari erantzun modura AEBk ofentsiba bat abiarazi du NATO eta Europar Batasuna bezalako instituzioak indarberritzeko.

Testuinguru horretan, mendebaldeko blokeak hegemonizatu du gerraren aurkako eta ukrainarrekiko elkartasun aldarria. Horrek esan nahi du, gerra sufritzen ari diren ukrainarrekiko elkartasun mezu orokor bat, «gerrarik ez» aldarria bezala, ez dela nahikoa. Are, ikuspuntu partzial batean oinarritzen da eta gerra ekidin baino horren areagotzea eta zabalpena errazten duelakoan nago.

Esan nahi dut, elkartasun mezu hori ez badoa NATOren azken hamarkadetako politika gerrazale eta zapaltzailearen salaketa mezuari lotuta, Ukrainako gerraren testuinguru-analisi desitxuratu bat egitera eta NATOren basakeriak zuritzera arriskatuko ginateke. Bestetik, elkartasuna ez bada modu zabalagoan helarazten gerra eta bere ondorioak sufritzen ari diren herritar xume guztiekiko, izan Donbassen, Errusian, Europan edo Yemenen, ohartu gabe Ukrainako gobernu autoritarioaren zein talde faxisten erresistentzia babesten amaitu genezake.

Azkenik, gure elkartasun keinuak AEB eta EB, zigor ekonomikoen bitartez eta armak bidaltzeari esker, areagotzen ari diren mundu mailako eskalada gerrazalearen salaketarekin ere bat etorri behar du. Politika horrek Errusiako zein Europako langileria pobretzea dakarrelako eta gerra hotsak are gehiago zabaltzea esan nahi duelako.

«Errusiaren inbasioari erantzun modura AEBk ofentsiba bat abiarazi du NATO eta Europar Batasuna bezalako instituzioak indarberritzeko»

Egun izoztuak



**MADDI AMIANO
ALLUE
IRAKASLEA**

Denbora daramat gauetan bat-batean esnatuz. Energia gris hau atzean utzi ezinda nabil. Benetan bihotza ahotik aterako zaidala pentsatzen dut horrelakotan, eta esnatzen naizen bakoitzean gurekin dagoela

pentsatzen dut. Bere usaina ere hartzen dudala esatera ausartzen naiz. Baina tamalez oraindik ere ez dakigu ezer berari buruz. Izardun izarak berriz bere lekuan kokatu, buelta erdi eman, eta izerdi hotza lehortuz lo egiten saiatzen naiz.

Ezjakintasuna hogeiei egunetik gora doa jada eta tarteka hilabeteak izango ote diren galdetzen diot neure buruari. Bien bitartean, nik, telebista gutxiago

retzat bigarren alaba, alabarentzat, ahizpa bakarra. Bihar Inharen 14. urtebetetze eguna izanik, elkarrekin pasatako momentuen bideo bat osatzen dabil alaba bere egongelan. Auskalo noiz ikusi ahalko duten elkarrekin. Ate ondoan jarri eta atsekabez behatzen dut: «Egon lasai, etorriko da», esan nahian. Begirada goibeldu eta isilik geratzea aukeratu dut.

Azken urtea COVIDak zapuztu bazuen, oraingoa bakearen arazoei irtenbidea emateko jokaera koldarra dutenek izorratu dute. Eta ez da nolanahikoa egoera, aberatsek gerra egitean, txiroak baitira hiltzen direnak. Azken finean, programa sozialetan baino armamentu militarrean inbertsio handiagoa egiten duten nazioak bilakatzen ari gara, eta honek heriotza espiritual baina ez dakarrela esatera ausartzen naiz. Ziklikoegia da alderantzizko mundu honen historia...

Asteburuan kostara gerturatzeko asmoa daukagu.

«Bien bitartean, nik, telebista gutxiago ikustea, goizetan irratia ez jartzea eta gauero zertxobait idatziaz barrena askatzea bezalako erabakiak hartu ditut»

ikustea, goizetan irratia ez jartzea eta gauero zertxobait idatziaz barrena askatzea bezalako erabakiak hartu ditut. Dena dela, nik; bizirik dagoela esango nuke, nahiz eta batzuetan burutik pasatzen zaidan horrela ez izatea ere posible dela. Desplazatu direla esango nuke, Bielorrusia alderantz. Mantak, sukaldatzeko traste, eta hotzaz babesteko egindako sua suma ditzaket bere inguruan. Ez dago bakarrik, bere ahizpa eta familiako kideez gain jende gehiago dagoela berarekin esango nuke. Eta, ziur naiz Koko txakurrak ez duela bere albotik alde egiten, eztanek behin baino gehiagotan asalatu badute ere.

Nire alaba ere hunkituta dago. Inhak urteak daramatza Euskal Herrian Gabonetaz eta udaz gozatzen. Eta sentimenduz etxe-etxekoa da guretzat Inha. Ni-

Itsasoko ilunabarrak duen energia magikoa iruditzen baitzaigu alabari eta niri. Alaba belarrira gerturatu zait lotsa puntu batez. Xuxurlaka, bideoaz gain itsasoan utzi nahi duen eskuz idatzitako gutun bat pres-tatu omen dio Inhari.

Kondairak dio, badirela itsas azpian beirazko ontzietan gordetako ipuinak. Ondoratutako itsasontzi artean, anemonen barnean edota koralen askotariko formen artean ziur aski. Tira, ea ba gurea hain desira dugun besarkada batek egi bihurtzen duen. Eta behingoz haurtzaroak helduen borroketatik at gertatzeko balio duen.

Azken finean, ezagutu ere egiten ez direnak gerran murgiltzen dira, hain ezagun diren aurpegi horien arteko sarraskirik gerta ez dadin...



zozketak



Atarikideentzat **zapata parea** dugu

Edizio mugatuko

Herri Urratseko zapata parea

Kailitate handiko zapatak, mimo handiz ekoiztuak.
Edizio mugatua.

• Jasone Armendariz (Altzo)

Saridunarekin Ataria jarriko da harremanetan

22.korrika BADATOR!

ATARIAko lekukoa
Iker Telletxeak (Ibarra)
eramango du

Ataria jarriko da
zurekin harremanetan

Lekukoa Tolosan, apirilaren 8an,
11:00ak aldera eramango da

Lekukoaren zozketan
parte hartzeagatik
Korrikako produktuez osaturiko
4 sorta banatuko ditugu



SARIDUNAK

- Angelmari Munduate (Tolosa)
- Askatasun Taupadak (Ibarra)
- Jon Otegi (Anoeta)
- Olatz Urbietta (Tolosa)

Sarien bila Ataria-ko bulegotik pasa



Ataria KORRIKArekin bat!



Jarraitu Korrika Ataria.eus-en



www.ataria.eus • 107.6 fm



Iragarri zurea gurean

* Atarikideentzat eskaintza bereziak

* Itzulpena eta diseinua doan

publi@ataria.eus / 661 678 818

AGENDA

OSTIRALA

APIRILAK 1

ADUNA

UDABERRI MUSIKALA

18:30. Loatzo musika eskolaren udaberri musikala. Saxofoia, elizako aterpean.

ALEGIA

PILOTA PARTIDA

19:00. Intxurren 50. urteurrena. Binaka neskak palaz: Uxue Olano - Oneka Karrera. Anne Agirre - Nagore Murua. Binaka mutilak eskuz: Oinatz Bengoetxea - Aratz Irazustabarrena. Julen Alberdi - Jon Erasun. Sarrera 10 euro. 16 urte azpikoak debalde. Oinatz Bengoetxea-Aratz Irazustabarrena.

ALTZO

UDABERRI MUSIKALA

18:30. Loatzo musika eskolaren udaberri musikala. Pianoa. Eskolan.

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

19:30. *Eresia. Lurra arin bekizu, ama.* Sarrera: 6 euro. Geuretik sortuak ekimenaren barruan. Gurean.

KONTZERTUA

22:00. Sofa eta Jiel (Joseba Irazoki eta lagunak), Sahrijai elkarteak antolatuta. Sarrera aurrez 5 euro eta egunean bertan 8 euro. Aljibean.

ANOETA

IKASTAROA

17:30-19:00. Ahalduntze ikastaroak emakumeentzat. *Mindfulness.* Bost euro. Gela balioanitzean.

HITZALDIA

18:00. *Ukraina, Errusia, Donbass... zer gertatzen ari da?* hitzaldia, Jon Kortazarrekin eta Askapenaren brigada aurkezpenak, Gaztetxean.



ASTEASU

AURKEZPEN FESTA

19:00. Gazteon Sokaren aurkezpen festa. Kalejira, jolasak, erronkak, bideoak eta mokadu goxoak, plazan.

KONTZERTUA

20:00. Andoaingo udal musika eskolako abesbatza. Usarrabi abesbatzak ere parte hartuko du, elizan.

BELAUNTZA

KMK. BERTSO AFARIA X 7

20:00. Andoni Egaña eta Ane Zuazubiskar bertsolariekin.

GAZTELU

KMK. BERTSO AFARIA X 7

20:00. Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso bertsolariekin.

IBARRA

KMK. BERTSO AFARIA X 7

20:00. Jon Maia eta Maialen Akizu bertsolariekin. Xeplan.

20:00. Onintza Enbeita eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin. Deportiba elkartean.

20:00. Beñat Gaztelumendi eta Nerea Ibarzabal bertsolariekin. Sendi ekintza elkartean.

IRURA

KORRIKA. MAGIA IKUSZIKUNA

17:00. Bi magia talde eta bi magia mota ezberdin. Enikma taldea eta Julen magoa. Herri eskolako aretoan.

XARE TXAPELKETA

19:00. Eskolarteko kozkortuen Gipuzkoako Xare Txapelketa: Finalak. Trinketea.

LEABURU-TXARAMA

KMK. BERTSO AFARIA X 7

20:00. Iker Zubeldia eta Nerea Elustondo bertsolariekin.

TOLOSA

IKASTAROA

16:00-18:00. KZ Gunean, aisia eta entretenimenduaren inguruko aurrez aurreko formazioa: *Musika aplikazioak zure smartphonean.* Gaztelaniaz.

KONTZERTUAK

19:00. Donostia eta Tolosako musika eskoletako orkestren kontzertua, Zerkausion.

20:30. *Euskal danbolinaren aroak* Piter Ansorena eta Joserra Senperenaren eskutik, Topic-en.

22:00. MCD taldearen kontzertua, Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

22:30. Arozenatarrak. Aitor, Xanet eta Urko kontzertuan. Frontonen.

MENDI IRTEERA

Oargi mendi elkarteak antolatutako mendi irteera, Pirinioetara; Garmo Negro eta Bacias mendietara igoko dira.

TOLOSALDEA

IKASTAROA

09:30-13:30. Enpresa kudeaketa Ikastaroa, ekintzaile berrientzat, Lehiberrin.

ZIZURKIL

UDABERRI MUSIKALA

18:30. Loatzo musika eskolaren Udaberri Musikala. Dultzaina. Zizurkilgo goiko plazan.

LARUNBATA

APIRILAK 2

ADUNA

KORRIKA. UMORE BAKARRIZKETA

19:00. *Txikiren bakarrikzeta. 40 urte eta aldapan behera niek,* Elordin.

ALKIZA

SLOW ART DAY

11:00. Ur Mara museoan Slow Art Day. Juan Chillidaren konstelazioak, Juan Kruz Igerabide eta Koldobika Jauregiren aforismoak, Aitor Irulegiren euria, Ainhoa Goenagaren isilunea eta Maria Giro eta Julia Leighen Hatzen memoria. Sarrera doan erreserbatu daiteke mail@urmara.com helbidean.

ANOETA

IKASTAROA

09:30-13:30. Ahalduntze ikastaroak emakumeentzat. *Etxeko brikolajea.* Gela balioanitzean.

TAILERRA

11:00. *Feminismoa denon kontua da* tailerra, Matraka talde feministarekin, Gaztetxean.

ASTEASU

II. ANTTINE EGUNA

Patxine tabernan eta inguruan.

10:00. Mattin gizarte abenturaren eskutik familiarteko ginkana.

10:00-13:00. Jatorkin Al-Nahdaren eskutik, elkartearen inguruko informazioa eta postu solidarioa.

11:30. Krossfit vs. Herri kirolak.

13:00. Bertso triki poteoa. Unai Mendizabal eta Haritz Mujika. Herriko trikitilariak.

13:30-15:30. Bazkaltzeko, parrillada.

16:00. Laskotxaranga.

19:00. Dena taldea.

20:00. Pez esperma.

20:30. Afaltzeko, parrillada.

23:30. DJ sorpresa. Egunean zehar txosna herrikoia.

Lortutako dirua Aspanogi elkartearentzat izango da.

IBARRA

M8

Zartadaren eskutik.

10:30. Mural margoketa.

12:00. Elkar ezagutza tailerra.

13:30. Bazkaria.

IRURA

BIZIKLETA GINKANA

16:30. Herriko hainbat txokotan bizikleta jolas, jarduera eta irteera ezberdinak antolatuko dira adinaren arabera. Bukaeran parte hartzaile guztien artean bizikleta osagarrien zozketa izango da. LH2 - DBH1 arteko ikasleei zuzendurik.

TOLOSA

TOLOSALDEKO BATZARRA

10:00-12:00. *Independentziarako indarra* Sorturen Tolosaldeko batzarra. Izena emateko: aritz.lopez@sortu.eus. Kultur etxean.

ANTZERKIA

18:00. *Yo, Claudio.* Theatrola

antzerkia taldearen ikuskizuna.

Gaztelaniaz. Estreinaldia. Sarrera: 7,5 euro. Topic-en.

AIZKORA DESAFIOA

18:30. Aizkora apustua. Mikel Larrañaga vs. Iker Vicente. Lana: 6 onbiko eta 12 kanaerdiko. Jokoa 14.000 euro. Sarrerak gordetzeko: 616 87 48 38 edo 610 455 495. Zezen plazan.

KONTZERTUA

22:00. Sofa, Rodeo eta Occhi di Farfalla Bonberenean izango dira. Sarrera: 8 euro.

ZIZURKIL

ZIZURKIL BLUES

19:00. Koko Jean & The Tonics; Joan Pau, Cumellas & Paul San Martin, Joxe Arregi plazan.

IGANDEA

APIRILAK 3

ADUNA

KORRIKA. OMENALDIA

12:00. Korrikak omenduko dituen Piritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei oparia egingo die Adunako herriak. Deialdia luzatu dute, plazara gerturatzeko euren panpin, arropa, marrazki, liburuekin... argazkia ateratzera. **Ondoren.** Triki poteoa eta pintxoak. Plazan.

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

19:30. *Winona&Grace* Khea Ziater helduen antzerkia. Sarrera 8 euro. Alex Gerediagak zuzenduta eta Ainhoa Artetxe eta Graciela Doniz aktoreekin. Gurea antzokian.

ANOETA

EMANALDIA

18:00. Korrontziren musika-dantza emanaldia Aita Mariren alde, Mikelasagasti auditorioan. Doan. Gonbidapenak liburutegian.

IRURA

HERRI KROSA

11:00. Haurak.

12:00. Helduak.

TOLOSA

ONGIZATE JARDUNALDIA

Zure ongizatea elikatzen market.

Doako sarrera.

Berazubiko auzo elkartean.

10:30. Jardunaldiaren aurkezpena.

10:45. Greta marketing: aurkezpena.

11:15. Mar Lucena.

Nola erabili olio esentzialak zure egunerokoan.

12:00. Eneritz Mujika. *Ondo jaten ikasi eta aldatu zure bizitza.*

12:30. Ehun Fisioterapia: sorbaldarako ariketak.

16:00. Aran Crecimiento Personal. *Nola aplikatu Bach loreak.*

16:30. Leire Laca.

Meditazioa.

17:15. Maitane Ormazabal.

Autoestima.

18:00. Natalietta.

Erabili moda, zure alde.

TOLOSALDEA

ZUHAITZ EGUNA

Zuhaitz Eguna Irazustako lepoan, Enirio-Aralarko Mankomunitateak deituta. Urmaela babesteko itxitura bat egin dute Irazustako lepoko dolina batean, eta itxitura horren barruan pagoa eta lizarra landatuko dituzte. Auzolanean parte hartu nahi duten herritarrek izena eman beharko dute: *enirio-aralar@ordizia.eus*. 11:00etan Irazustako lepoan edo 09:00etan, Ataungo San Martin auzoko plazan.

ZIZURKIL

DUATLOIA

10:30. Zizurkilgo 1. Duatloia.

Zumarpe saia. Euskadiko

zirkuituan sartuta. Gipuzkoako

txapelketa. Sprint distantzia.

ASTELEHENA

APIRILAK 4

IBARRA

UDABERRI MUSIKALA

18:30. Loatzo musika eskolaren udaberri musikala. Perkusioa, kultur etxean.

IRURA

HERRI BATZARRA

17:00. Irurako herri-ostatu sortzeko partaidetza-prozesuaren barruan egingo den bigarren herri-batzarra izango da eta ostatuaren antolaketa eta funtzionamenduak landuko dira, herri eskolako aretoan. Zaintza zerbitzua egongo da: interesatuak 943 692 674 telefonora deitu edo *gazteria@irura.eus* helbidera mezu bat bidali apirilaren 4a, 12:00ak baino lehen.

UDABERRI MUSIKALA

18:30. Loatzo musika eskolaren udaberri musikala. Flauta, musika eskolan.

TOLOSA

ELKARRETARATZEA

12:00. Tolosaldeko pentsiodunen elkarretaratzea, udaletxe aurrean. Gainera, Iberdrolako bulegoa bisitatuko dute, euren «ezinegona» adierazteko: «Gaur egungo egoera azaltzeko eta horrek adineko pertsonengan dituen ondorioez» hitz egiteko.

ZIZURKIL

ANTZERKI ASTEA

11:00. *Murren bidaia*.

LH 4-5-6ko ikasleentzat,

Atxulondo kultur etxean.

ZINEMA



EL ACONTECIMIENTO

Larunbata (19:00) eta astelehena (19:00).

Tolosa, Leidor.



BATMAN

Larunbata (21:30); igandea (19:00).


Tolosa, Leidor.



COMPETENCIA OFICIAL

Larunbata (19:30 eta 22:00) eta astelehena (20:30).

Amasa-Villabona, Gurea.



BARRASKILOA ETA BALEA

Igandea (17:00).

Tolosa, Leidor.



AMATASUNARI TIRAKA

Bertsoa, dantza, musika, hitza... Hainbat diziplina taularatzen dira Amaiur Luluagak eta Oihana Iguaranek sortu eta antzeztuko duten 'AMArAun' ikuskizunean. Amatasunaz hausnartzeko gonbita da.

Imanol Garcia Landa

AMArAun ikuskizuna lehenengo aldiz jende aurrean datorren ostegunean izango da, apirilaren 7an, 19:00etan hasita, Villabonako Gurea aretoan. Amaiur Luluaga (Anoeta, 1991) eta Oihana Iguaran (Amasa, 1990) dira sortzaileak eta oholtza gainean izango direnak. Luluaga dantza mundutik dator, besteak beste Haatik konpainiako kidea da, eta Iguaran bertsoaren eta literaturaren esparrutik. Dantzak eta bertsolaritzak uztarketa berritzailea izango dute, baina ez dira bi espresio horiek bakarrik egongo, musikak eta kantuak bere lekua eta presentzia izango dute.

Gonbidapen batetik sortu zen *AMArAun*. Lanku Kultur Zerbitzuetatik jaso zuten biek obra bat osa-

tzeko gonbita, eta guztiz libre izateko mezuarekin. «Zeren inguruan eta zer formatutan egin gure erabakia zela esan ziguten», dio Luluagak. Anoetako plazako terraza batean elkartu ziren bi sortzaileak. «Aurreneko kontaktu horretan Oihanari esan nion amatasunaren gaia gertu sentitzen nuen gauza bat zela, nire kezka guztiekin. Dantzaria izateagatik suposatzen zuenagatik», esan du Luluagak. «Oihanak ere segituan esan zuen, ama izan berritan, ari zela bere egunerokotasunean hausnarketa horretan».

Iguaranek gaineratu du gaia aukeratzea ez zela kalkulutako zerbait izan: «Anoetako plazan egin genuen bilera hori, terraza batean, eta hor bertan gu-

gandik gertu zeuden Amaiurren adinekoak eta bere kuadrillakoak beraien haurrekin. Nik alaba amari utzita nuen bilera egiteko, eta zuzenean hasi ginen nola geunden kontatzen, eta segituan iritsi ginen gai horretara». Beraien hausnarketez eta esperientzia pertsonalez gain, ikusi zuten «bazirela korapilo batzuk eta hari batzuk dimentsio soziala zutenak, gu momentu horretan gurutzatzen gintuztenak, eta, beraz, gogoia genuela lehenik eta behin guk lantzeko, eta uste genuena garrantzitsua izan zitekeela ere beste askorentzat».

Amatasuna hain gai zabala eta bizitza bezain zaharra izanik, nondik abiatzea erabakitzea tokatzen zen. «Amatasuna lantzeko gure gorputzetatik abiatu gara, guri mugitzen zizkigun kezka, desio eta korapilo horietatik», zehaztu du Iguaranek. «Baina segituan agertu zen galdera 'zer da ama izatea?' izan zen, ama izateak zer dakarren berarekin, baina ama nola izan ere, emakume beste eredu izan daitezke, eta gertatu daiteke emakume berak ume bakoitzarekiko amatasun desberdin bat sentitzea». Horri ere lekua egin nahi zioten, eta saiatu dira aztertzen atzetik «zer hari, zer soka, zer idatzi gabeko arau dauden», eta horren bueltan emanaldiari forma eta narratiba bat emateko hautu batzuk egin dituzte. «Gure kasuan zentrala zen gorputzaz hitz egitea eta gorputzetik aritzea. Amatasuna ez da ama izan nahi edo izan nahi ez duten, edo interpelatuak sentitzen diren horien gaia bakarrik; denona baizik, denok daukagu gutxienez ama bat, eta denoi eragiten digun gai bat da. Gure amek zer egin duten, gu hazteko zer utzi behar izan duten albo batera, eta nola tratatzen ditugun amak, gizarte bezala, alaba bezala eta mundu bezala», azaldu du Iguaranek.

Obraren izenak bere esanahia du, baina espero dute jendeak ere bere zentzua ematea. «Guretzako bai da garrantzitsua hemen kontatuko duguna abiapuntu izatea», zehaztu du Iguaranek. Ez dutela mezurik, ondoriorik, eta irakaspen bat gaiaren inguruan zehaztu dute. «Nahi duguna da nahiko intimoztat edo etxeko zokora baztertzen diren gai horiek atera-

tzea, eta jendeak hari horiei tira egin ahal izatea». Izenburuan nolabait amaren irudi hori egotea nahi zuten. Bestetik, «amaraunak suposatzen du korapiloa edo itsasten den hori eta gainetik kendu ezin dena. Beste zentzu batean ere sarea, eta horrek ematen zigun aukera bi alderdiez hitz egiteko. Korapiloe-tatik ea iritsi gaitezkeen elkar sostengatzeko moduko sare bat osatzera», diote.

«Erronka handia»

Erditzea eta erditze ostea irudikatzen dute emanaldian. «Nik beti esaten dut proiektu honetan Oihanak asko erakutsi didala, bere esperientziagatik, eta batez ere erditze ostean datorren fase horretaz», esan du Luluagak. «Niri, pertsonalki, oso intimoa den zer-



Oihana Iguaran eta Amaia Luluaga, Gurea aretoan. I.G.L.

bait denez, hau eszenan jartzea polita bezain apustu handi bat da. Ilusioz eta beldur pixka batekin ere heldu diot».

Iguaranek gaineratu duenez, «errespetu handia ematen du, erronka handia da». Erabakia hartu zutenean, «nahiz eta jakin zaila dela, oso intimoa delako bai une hori eta bai gorputzaldi hori», garbi zuten eszenaratu nahi zutela. «Intimoa izateaz gain, ezabatua dago. Ez du inork hitz egiten horretaz. Erditze oste bat nolakoa den ia bizitu arte ez dakizu, eta bizitzen



duzunean ere ez askotan. Eta guk hori oholtzan gorpuztea aldarrikapen bezala bizi dugu», azaldu du Iguaranek.

Bakoitza arlo jakin batetik badator ere, «emanaldian zerbait argi geratzen bada, rolak ez daudela banatuta da», esan du anoetarrak. «Hau da, Oihana ez da bakarrik bertsolaria, eta ni ez naiz bakarrik dantzaria. Rol uztarketa horretarako hitzaz baliatu gara, eta eszenatoki batean elementu asko daude laguntzen digutenak diziplinak uztartzen». Zerbait kontatu nahi dute, esperientzia batzuk bistaratu, eta «horiek kontatzeko halako eszena batzuk sortu ditugu eta eszena horietan erabili ditugu gure esku zeuden baliabide artistiko eta fisiko guztiak», zehaztu du amasarrak. «Gu ez gara aktoreak, baina beharra sentituz gero oholtzan elkarriketa bat izateko, horretan ere sartu gara». Arte eszenikoetan murgiltzeko Oinkari dantza taldean egindako ibilbideak eman zizkion aukerak eta prestaketa nabarmendu ditu Iguaranek.

Ikuskizunaren formatua berria da bientzat. «Ordu bat eszenatokian egotea eta dantzaren pisu gehiena hartzea denbora horretan, niretzat erronka da», zehaztu du Luluagak. «Oihanarentzat erronka den bezala dantza egiten duenean bertsotan aritzea. Niretzat era berean hain intimoa eta hain hauskorra den zerbait interpretatzea erronka bat da, ohituta bainago beste dantza bat egiten, fisikoagoa edo gogorra, eta ahulguneak ez erakusten». Iguaranek bat egiten du: «Erabateko erronka da. Gure konfort zonatik oso urrun kokatu gara, baina sinisten dugulako kontatu nahi dugun horretan. Baita ere konfiantzaz ikus-entzuleak hartzeko etorriko direla eta ulertuko dela zerbait kontatu nahi dela».

Eñaut Zubizarreta *Trigger*-ek sortu du musika es-



presuki emanaldirako. «Zoragarria da», esan du Iguaranek, eta bere kasuan erronka bat suposatzen duela gaineratu du. «Musika deseraikiagoa edo erritmoa hain markatua ez duen horretan babestu izan naiz, eta ez grabatuta dagoena eta ezin dena nire beharretara moldatu». Orduan eta gehiago entzun orduan eta sinistuagoa daude musika horrek berak «sekulako indarra» duela.

Estreinaldia datorren ostegunean izango da. Az-





ken bi asteetan buru-belarri ari dira obra gauzatzen. «Ez da bakarrik bertsoa, dantza, edo hitza uztartzea, beste elementu asko daude eszenatokian: argia, soinua, jantziak... gauza pila bat lantzeko», esan du Luluagak. «Urduri, baina konfiantza guztiarekin iritsiko gara lehen saiora». Gurea antzokian ari dira lan horiek guztiak osatzen eta eskertuta daude Villabonako Udalari, aretoa libre dagoen orduetan erabili dezaketelako. «Erditze aurreko prestaketak etortzen zaizkit



burura», esan du Iguaranek. «Ostegunean jaioko da *AMARAUN*. Gogo handiz gaude, batetik bistartzeko, eta, bestetik, elkarrizketa hori hasteko ikus-entzuleekin. Ea nola hartzen duten, ea zer pizten duen. Gu hainbeste mugitu gaituen gai batek ea zer erantzun dakarren».

Lehen emanaldia herrian izatea berezia dela esan du Iguaranek. «Anoetatik ere gertu samar dago, eta gainera Amaiur bera irakaslea da Villabonan, besteak beste balleta irakasten du. Gertu sentitzen gara etorri daitezkeen jende horrengandik, bereziki dantza esparrutik. Oso eskertuta eta ilusioz gaude, eta aldi berean errespetu gehiago ematen du, jende ezaguna espero den horretan». Anoetan ere aurki izango da emanaldia, maiatzaren 22an, Mikelasagasti aretoan. «Beti esan izan dut izan ditugun bestelako sorkuntza guztietarako Mikelasagasti auditorioa utzi izan digula Anoetako Udalak, nahi izan duguna eta gehiago. Gurea antzokira etorri aurretik Anoetan ere pasa ditugu orduak entseguak egiten. Udalari eskerrak eman nahi dizkiot ematen duen laguntzarengatik».

Bost emanaldi lotuta dituzte dagoeneko. Eskualdean, Villabona eta Anoetaz gain, Zizurkilen izango dira, maiatzaren 14an. «Itxura oso polita hartzen ari da eta uste dugu merezi duela herri askotan egitea emanaldia», esan du Luluagak. Irudi mailan ikuskizuna «ederra eta indartsua dela gaineratu du Iguaranek: «Eta nik hori esaten dut, kantuan ari naizen momentu askotan Amaiurri begira egoteko zortea dudalako. Amaiurrek hauskortasuna aipatu du, baina iruditzen zait hain indartsua hauskortasun horren eszenaratzea, ni behintzat asko mugitzen nauela. Uste dut asko merezi duela obra hau oholtzara eramatea eta jendearekin konpartitzea».



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA.

Negu beteko giroa. Egun osoan zerua estalita egongo da eta euri zaparradak ugariak izango dira, non mardul botako duen eta tar-teka ekaitzak joko duen, kazkabar eta guzti. Elur-maila goizean goiz 300 metrotan kokatuko da. Eguneko erdiko orduetan 500-600 metrotera egingo du, baina azken orduetan berriz ere 300 metrotera jaitsiko da, puntualki beherago egin dezakeelarik. Ipar haizeak oso zakar joko du eta tenperatura jaitsi egingo da, nekez gaintutuko dituztelarik 5-7 graduak.

LARUNBATA

Giro hotza. Goizean oraindik euri zaparrada batzuk izango dira eta elurra ere maila baxuetan agertuko da, 300 metroren bueltan kokatuz, uneren batean beherago egin dezakeelarik. Egur-ditik aurrera atertzeko joera hartuko du eta, nahiz eta, uneren batean tantaren bat edo beste bota, orokorrean ateri eutsiko dio. Elur-maila arratsaldean 500-600 metrotan kokatuko da. Ipar-mendebaldeko haizeak bizi jotzen jarraituko du eta tenperaturak 6-8 gradutan joko du goia.

IGANDEA

Giro kaxkarra. Egun osoan hodeiak nagusituko dira eta euri zaparradak utziko dituzte, ugariagoak izango dira eguneko erdiko orduetan. Azken orduetan atertuko du, baina giro bustia nagusituko da. Ipar-ekialdeko haizeak ahul joko eta tenperatura antzeko mantenduko da. Elur-maila 500-600 metrotan kokatuko da.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

APIRILAK 1, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.

APIRILAK 2, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Eurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

APIRILAK 3, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Leire Andres Morant.
Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

APIRILAK 4, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa.

Eurne Bengoetxea Aiestaran.
Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO

FARMAZIA: TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.



ANOETA ITURTXULO

28 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA
TRASTELEKU

AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!

2 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
BAJUAK, 30M2-KO TERRAZA
SUKALDEA BARNE
GARAJEA ETA TRASTELEKUA
AUKERAN

210.000 €
-tik hasita



DATORREN PROMOZIOA

BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE ITXIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!



169.627€-tik hasita

Varilux®
PROGRESIBOEN
2. PAREA
OPARI

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multiópticas.com   

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen